

Kontxa Rekalde Aiestaran
Amorebieta-Etxano, Bizkaia (1905)

Aurkibidea

Biografia

Leginetxen jaio zen 1905.ean; Santa Luzian bizi izan zen. Ama bertakoa zuen eta aita Etxanokoa. Bere aitona-amonak Gipuzkoatik etorritako artzainak izan ziren. Senarra Etxanokoa zuen. Gaztetan neskame lanetan ibili zen Bilbon. "Zornotzako aditz-eren karinkara" liburuaren oinarri izan ziren partaideetako bat da.

Zintak

AMO-089

- **Proiektua:** Zornotzako aditz-eren karinkara
- **Elkarrizketatzailea(k):** Zelaieta Gerediaga, Luis Mari
- **Data:** 1988-10-08
- **Iraupena:** 60 min
- **Euskarria:** CD
- **Kodifikatzailea:** Sapsootham, Itziar
- **Emalea:** Amorebieta-Etxanoko Udala

Pasarteak

1. Leginetxe aldeko euskara

- **Erref:** AMO-089/007
- **Iraupena:** 0:01:06. **Hasi:** 00:02:54. **Bukatu:** 00:04:00

Gaia(k):

- Euskara » Euskalkia, herri hizkerak, euskara batua
- Euskara » Tratamenduak » Hitanoari buruz

Laburpena:

Zornotzako auzoen artean ez du nabari euskara ezberdina erabiltzen denik. Gazteek hika egiten dute eta abadeari berorika.

2. Umetako kontuan: eskola, aisia

- **Erref:** AMO-089/008
- **Iraupena:** 0:01:32. **Hasi:** 00:04:00. **Bukatu:** 00:05:32

Gaia(k):

- Euskara » Euskararen egoera
- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Eskola

Laburpena:

Gaur egun gaztelania gehiago entzuten da auzoan, kanpotik lanera etorri zirenengatik. Baina berak beti euskaraz egin du. Udaletxeko eskolan ikasi zuen 9 urtetan. Umetan ez zen jolas handirik. Etxeko lanetan baino, soroko lanak egiten zituen Kontxak.

3. Zornotzako jaiak XX. mende hasieran

- **Erref:** AMO-089/012
- **Iraupena:** 0:02:14. **Hasi:** 00:07:25. **Bukatu:** 00:09:39

Gaia(k):

- Aisia » Jai-giroa » Herriko ospakizunak

Laburpena:

Zornotzako jaietan goiz joaten zen etxera. Dantzak egiten zuten filarmonikarekin. Santanatzu (Santa Anatxu) eguna. Hurrengo egunean lan egin behar zuten, denak erretiratzen ziren goiz.

4. Santixauetako aiton-amonen bazkaria

- **Erref:** AMO-089/015
- **Iraupena:** 0:01:44. **Hasi:** 00:11:13. **Bukatu:** 00:12:57

Gaia(k):

- Aisia » Jai-giroa » Herriko ospakizunak

Laburpena:

Santixauetan aitona-amonen bazkaria antolatzen da eta Kontxa bertara joaten da. Giro ona egoten da. Auzoko jaiak galtzen ari dira eta Andra Marietara ere jende gutxiago dator. Erromeriarik ez dago orain.

5. Lantegien irekierarekin, euskara behera

- **Erref:** AMO-089/017
- **Iraupena:** 0:01:22. **Hasi:** 00:13:00. **Bukatu:** 00:14:22

Gaia(k):

- Euskara » Euskararen egoera
- Ekonomia eta industria » Boom industrialak

Laburpena:

Gerra aurretik euskara gehiago erabiltzen zen. Jende guztiak hitz egiten zuen euskaraz, nahiz eta eskolak gaztelaniaz izan. Lantegiak eraiki zirenean, Espainiatik jendea heldu zen eta orduan hasi zen euskara galtzen.

6. Paseatzeko lekuak

- **Erref:** AMO-089/020
- **Iraupena:** 0:01:26. **Hasi:** 00:15:33. **Bukatu:** 00:16:59

Gaia(k):

- Aisia » Mendia eta hondartza

Laburpena:

Leginetxan paseatzen erraza da. Jende dezente ibiltzen da bertan. Garai batean, ordea, Larrara joaten zen jendea paseatzera.

7. Garai bateko Etxanoko herria

- **Erref:** AMO-089/025
- **Iraupena:** 0:00:58. **Hasi:** 00:25:04. **Bukatu:** 00:26:02

Gaia(k):

- Herria, azpiegitura

Laburpena:

Etxano asko aldatu da. Amorebietarekin elkartu aurretik, Etxanoren udaletxea Kaitanan dagoen biltegian zegoen. Herriko mugak zeintzuk ziren kontatzen du.

8. Etxano: herri izatetik, auzo izatera

- **Erref:** AMO-089/026
- **Iraupena:** 0:02:02. **Hasi:** 00:26:02. **Bukatu:** 00:28:04

Gaia(k):

- Herria, azpiegitura

Laburpena:

Etxanoko umeak Kaitanara joaten ziren ikastera. Bertan zegoen eskola, udaletxea, epaitegia.... Etxanoren eta Zornotzaren barruan zeuden auzoak ipatzen ditu.

9. Bilbo inguruan euskara noiz galdu zen

- **Erref:** AMO-089/030
- **Iraupena:** 0:00:58. **Hasi:** 00:30:04. **Bukatu:** 00:31:02

Gaia(k):

- Euskara » Euskararen egoera
- Lantegiak » Ekonomia eta industria » Bizkaiko lantegiak » Bilbo Handiko lantegiak

Laburpena:

Orain dela 100 bat urte hasi zen gaztelania sartzen Bilbon. Aurretik denek egiten zuten euskaraz. Galdakaon ere, eskumaldekoek euskaraz egiten dute eta ezkerrekoek ez.

10. Etxanon ez zen udal-zergarik ordaintzen

- **Erref:** AMO-089/033
- **Iraupena:** 0:02:03. **Hasi:** 00:32:50. **Bukatu:** 00:34:53

Gaia(k):

- Herria, azpiegitura » Herri-antolaketa » Udala

Laburpena:

Etxanoko udalak oso ondo lan egiten zuen. Herrian taberna bat eta gasolindegia bat zegoenez, haien zergekin ordaintzen ziren herriko onurak. Biztanleek ez zuten zergarik ordaintzen. Etxe asko errentan zeuden.

11. Tabernan txakur handi bat gastatu

- **Erref:** AMO-089/036
- **Iraupena:** 0:02:13. **Hasi:** 00:36:15. **Bukatu:** 00:38:28

Gaia(k):

- Lantegiak » Ekonomia eta industria » Bizkaiko lantegiak » Durangaldeko lantegiak
- Aisia » Taberna giroa

Laburpena:

Zornotzako lehenengo lantegiak zeintzuk egon ziren aipatzen du. Jende gutxi egiten zuen lan lantegian. Denda dezente zeuden Zornotzan. Etxanon taberna batzuk ere bazeuden, baina ez zegoen gaur egun dagoen ohiturarik tabernara joateko. Kamioietan edo gurdiarekin ibiltzen zirenak, iluntzean tabernara joaten ziren.

12. Astoekin ekartzen zen ardoa Errioxatik

- **Erref:** AMO-089/038
- **Iraupena:** 0:02:25. **Hasi:** 00:38:30. **Bukatu:** 00:40:55

Gaia(k):

- Baserrria » Baserriko lanak » Baserriko animaliak
- Herria, azpiegitura » Herri-antolaketa » Bideak

Laburpena:

Etxanon garraioak idiekin edo behiekin egiten ziren. Azokara astoarekin joaten ziren. Astoekin ekartzen zen Errioxatik ardoa. Bideak ez ziren onak izaten eta batzuetan ez zegoen biderik ere ez.

13. Zornotzako auzojo jaiak

- **Erref:** AMO-089/039
- **Iraupena:** 0:01:44. **Hasi:** 00:40:55. **Bukatu:** 00:42:39

Gaia(k):

- Aisia » Jai-giroa » Auzoko ospakizunak

Laburpena:

Gaztetan Muniketako jaietara joaten ziren eta buelta gauez egiten zutenez eta bideak txarrak zirenez, ez ziren ondo ikusten. Zornotzako auzo guztietako jaietan ibili da. Borrokak egoten ziren.

14. Zornotzako jaiak garai batean

- **Erref:** AMO-089/040
- **Iraupena:** 0:03:18. **Hasi:** 00:42:39. **Bukatu:** 00:45:57

Gaia(k):

- Aisia » Jai-giroa » Herriko ospakizunak

Laburpena:

Garai bateko Zornotzako jaietan beti borroka egoten zen. Gazteak dantzara eta borrokara joaten ziren. Garai batean Zornotzako plaza izaten zen erromeria. Bilbotik jendea inguratzen zen. Herriko jaietan, ordubiak aldera bukatzen zen musika eta etxera joaten ziren.

Ahotsak.eus-eko edukiarekin sortutako dokumentu automatikoa.
2026-08-12

CC-by-sa | Ahotsak.eus
Badihardugu Euskara Elkartea
Markeskua Jauregia, 20600 Eibar
943121775 - ahotsak@ahotsak.com